



## “EMAHOTSA” proiektuaren aurkezpena.

Uhartan, 2018/03/17

Larunbatean, martxoaren 17an, “EMAHOTSA”proiektuaren aurkezpena burutu zen. EMAHOTSA, hau da, neskek frontoian esku pilotan aritzean sortutako soinua.

EMAHOTSA, esku pilotan ondo jokatzen duten neskez osatuta dago; takoak jarrita , abiaduraz eta erakustaldia emanaz . Mutikoentzako egiten diren hamaika txapelketetan parte hartzeko desioaz eta lehiatzeko aukerarik galdu barik, goiko kategoriatik aurrera. (Gaztetxo eta gazte kategorietan; gurekin Mirian Arrillaga, Arrate Bergara, Miren Larrarte, Alba Martínez, Olatz Ruiz de Larramendi, Nora Mendizabal, Naroa Agirre eta Leire Garai , besteak beste, horiek guztiak partehartze nabarmena “Antiguoko txapelketan” “Uharteko 4 ½, Basaburuakoan, eta abar). Txapelketetan nesken arteko partidak izatea aldarrikatzen dugu, orain arte mutikoentzako izanik, horrela emakumezko esku pilota maila ederra agerian gera dadin.

Gure helburu nagusia neskek esku pilota modalitatean kirol ibilbidea egiteko aukera izatea da, mutikoek duten antzekoa.

“Frontoian ez dago ez neskarik ez mutilik, PILOTARIAK baizik”

Lehenengo eta behin , **hazi nahi dugu**: Gaur egun EMAHOTSA 20 pilotariz osatuta dago, baina bi urteren buruan 80 baino gehiago izateko itzaropena dugu eta horrela gure herrietako frontoi guztietan gure partidak ikustekoak izatea, bai txapelketetan, bai erakustaldietan, bai jaietakoetan e.a.

Bigarrenik, normalizazio dugu helburu: Horrek kategoriaka jokatzea esan nahi du, mutikoek bezala. Une honetan , gutxi garenez, kimu kategoriatik gaztekora elkartzen gaituzte, sakean abantaila emanaz orekatzeko asmoz, baina hori ez da egokiena, ez gazteentzako, ez nagusientzako. Baina , printzipioz onartu beharko dugu lehiatzeko aukerari eustearren.

Gutxi barru, hainbat Pilota Federazioekin eta Euskadi nahiz Nafarroako gobernuekin hizketan hasiko gara gure proiektua ezagutarazi eta haien babes

eskatzeko. Ez dugu dirurik eskatuko, mutikoentzako burutzen diren txapelketetan parte hartzea erraztea nahi dugu, errespetuz eta berdintasunean eta horrela gehien gustuko dugun kirola, hau da, esku pilota, praktikatzen jarraitu ahal izatea.

EMAHOTSA plataforma bat da, kargurik ez, egoitzarik ez, kuotarik ez. Bi bultzatzaileak **Marian Gainzarain , Zaramaga Pilota Elkartekoa eta Txema Laso Huarte Pelotazale klubekoa**, harremanetako pertsonak izango dira bai neska pilotarien partehartze normalizatuari atea ireki nahi dioten txapelketako arduradunentzat, bai arestian aipatutako Federazio eta Autonomia Erkidegoentzat.

Gure harremanetako e-maila hauxe da: [emahotsa@gmail.com](mailto:emahotsa@gmail.com)

Gure pilotari batzuekin Uharten egindako aurkezpenaren argazkia bidaltzen dugu .

Zabalik gaude eta irrikaz geure pilotariak sortutako hotsa herri guztietako frontoietan entzun dadin.

EMAHOTSA